

ASKATASUNAREN ALDEKO MANIFESTUA

Aldaketa handiko garaia bizi dugu eta aldaketek birkokatzerara behartzen gaituzte. Kinka honetan Nafarroako Gobernuaren jarrerak kezkatu egiten gaitu. Alde batetik, kanpora begira, Nafarroako Gobernua gizarte anitza –*Lur Anitza*–, mundura zabalik, aurreratua eta kalitate eta bikaintasun eredua dela ikustarazten saiatzen da. Beste aldetik, Nafarroaren barnean, Gobernuak ez du aniztasuna onartzen, gizartearen zati bati aukerak ukatu egiten dizkio eta ez dio berdintasunean garatzeko aukerarik ematen.

Nafarroa osoan ingelesezko eskola eskaeraren arabera emateko prest agertzen den UPNren Nafarroako Gobernuaren aurpegi eskuzabala, begitarte zeken eta ozpindua bihurtzen da euskara ere eskaeraren arabera eskaintzea eskatzen diogunean.

Aurpegi atsegin horrek berak, irakasle eta ikasleek ingelesa ikas dezaten Kanadan egonaldiak ordaintzen dituenak, euskaraz ikasten duten ikasleendako eskolaz kanpoko jarduera eta hizkuntza sendotzeko egonaldietarako diru laguntzak izugarri murriztu ditu, erabat desagerrarazi ez dituenean.

Gobernuaren aurpegi atsegin horrek, Euskararen Foru Legea azken punturaino betetzen duela behin eta berriz dioenak, 100 eurora txikitu du eremu ez euskaldunean bizi eta euskaraz ikasteko ezinbestez beste herri batera mugitu behar duten neska-mutikoen garraiorako diru laguntzak. Nafarroako Gobernuak beste herri batera mugitzera behartzeaz gain, haurren eskolatzea gero eta zailago jartzen die hainbeste familiari.

Guk ere nahi dugu gure seme-alabek atzerriko hizkuntzetan hitz egiten jakitea, baina Nafarroako bi hizkuntzak ongi ezagututa. Hau da, gure xedea ez da euskara-gaztelania elebitasuna. Elebitasun hori gure seme-alaben eleaniztasun zabalaren oinarria izatea nahi dugu, bertako hizkuntzez gain, atzerriko hizkuntza bat edo biren gaitasuna emanen diena.

Gobernuak, Nafarroari abangoardia eta kalitate irudia emateko ahaleginetan, teknologia berriak eta ingelesa bultzatzen ditu, baina nafar euskaldunen beharrei bizkarra ematen die. Teknologia digitalak Estatuko nahiz atzerriko telebista asko hartzea ahalbidetzen du, halere gaur gaurkoz Gobernuak ez du ETB hartu ahal izatea ziurtatzen, tokiko irrati-telebistak diruz itotzen ditu eta Iruñerrian euskarazko irrati bati lizentzia ematea etengabe oztopatzen du. Abangoardismo eta kalitateak tokikoa eta hurbilekoa zaintzeari lotuta joan behar dute. Ezin dugu ulertu nolatan ikusi eta entzuten ahal ditugun ingelesez, frantsesez edo arabierazko emanaldiak doan eta, aldiz, euskarazko hedabideak ez ditugu bermatuta.

Krisi larria gainean dugula, gastu publikoa txikitzeko ahaleginak egiten ari direla sinestarazi nahi digute baina, berriz, murrizketarik latzenak euskarari dagozkion diru sailetan egin direla ikusi dugu: haurrak euskaraz eskolatu dituzten familiak, euskaraz ikasten duten ikasleak, euskarazko hedabideen ikusle, entzule eta irakurleak. Nafar gizartearen zati batentzat krisia bi halakoa da.

Betebeharretan berdinak bagara, eskubidetan ere berdinak izan behar dugula uste dugu. Horregatik Nafarroako gizarterengana jo nahi dugu heldu den martxoaren 28an eginen dugun manifestazioarekiko atxikimendua eta babesak eskatzeko. Manifestazioa hilak 28, igandean, eguerdiko 12:00etan eginen dugu, autobus geltoki zaharretik Sarasate pasealekura, honako lelo honen pean:

“Euskara hautatzeko askatasuna”

“Libertad para elegir el euskera”

***NAFAR GUZTIOK BERDINAK GARELAKO
ESKUBIDE ETA AUKERA BERBERAK NAHI DITUGU...***

1. ... haurrak geure herrian euskaraz eskolatzeko,
2. ... irratia piztu eta, hamaika aukeren artean, gure inguruko berriak euskaraz entzuteko,
3. ..., euskara eta gaztelania elebitasunetik mundura zabaldu atzerriko hizkuntzak ikasiz, eleaniztuna izanez.
4. ... helduen euskalduntzea eta prestakuntza jarraitua euskaraz,
5. ... hango eta hemengo telebisten artean euskarazkorik ere ikusteko,
6. ... kultura eta aisialdiaz euskaraz gozatzeko, eskaintza zabalez eta berdintasunez.
7. ... euskara ASKATASUNEZ hautatu ahal izateko

MANIFIESTO POR LA LIBERTAD

Estamos en un momento de cambio y los cambios nos exigen recolocarnos. Vemos con inquietud la actitud del Gobierno de Navarra que, por una parte, pretende dar al exterior una imagen de sociedad diversa —*Tierra de diversidad*—, abierta al mundo, avanzada y, ejemplo de calidad y excelencia; mientras que por otra parte, de puertas adentro, se niega la diversidad, se les cierran opciones a parte de la sociedad navarra y se le impide un desarrollo en igualdad de condiciones.

Esa cara amable del Gobierno de UPN que oferta el inglés a demanda muestra su lado más desagradable cuando pedimos que el euskera también se ajuste a demanda en toda Navarra.

Esa misma cara amable que promociona y subvenciona largamente estancias en Canadá para la formación en inglés del profesorado y alumnado, recorta sustancialmente —cuando no suprime— las ayudas a las actividades extraescolares y estancias de refuerzo del alumnado en euskera.

Esa cara amable que dice que cumple escrupulosamente la Ley del Euskera ha reducido a 100 euros la partida económica destinada a ayuda al transporte escolar para las chicas y chicos de la zona no vascófona que, al no tener oferta en euskera en su localidad, deben necesariamente desplazarse a otra. El Gobierno no sólo les obliga a trasladarse, sino que además les pone a muchas familias la escolarización de los niños cada vez más difícil.

Nosotros también queremos que nuestros hijos e hijas puedan comunicarse en lenguas extranjeras, pero queremos que lo hagan a partir del buen conocimiento de las dos lenguas de Navarra. No aspiramos al bilingüismo castellano-euskera, sino deseamos que sea la base de un amplio plurilingüismo que añada una buena competencia en una o dos lenguas extranjeras.

El Gobierno, en su afán de dar a Navarra una imagen de vanguardia y calidad, impulsa las nuevas tecnologías y el inglés, pero da la espalda a las necesidades de la población vascohablante. La tecnología digital posibilita el acceso a televisiones, tanto del Estado como extranjeras, mientras que a día de hoy el Gobierno descuida la captación de ETB, ahoga económicamente las radios y televisiones locales en euskera y obstaculiza compulsivamente la licencia de una radio euskaldun en la Comarca de Pamplona. Ese vanguardismo y esa calidad deben ir necesariamente unidos a la calidez y el cuidado de lo cercano y lo propio. No entendemos por qué si en algunas de nuestras casas podemos ver y oír emisiones en inglés, francés o árabe, gratuitamente, sin embargo, no se nos garantizan los medios de comunicación en euskera.

En este momento de crisis, mientras se nos vende la imagen de austeridad del gasto público, vemos que los recortes más drásticos son, precisamente, en esas partidas que afectan a la lengua vasca, a las familias que han elegido escolarización en euskera para sus hijos, a los propios escolares, a los oyentes, espectadores o lectores de medios de comunicación en euskera. La crisis es doblemente crítica para una parte de la sociedad navarra.

Si somos iguales en deberes, pensamos que hemos de serlo también en derechos. Y es por eso que nos dirigimos a la sociedad para pedirle su apoyo a la manifestación que realizaremos el día 28 de marzo a las 12 del mediodía en Pamplona, desde la antigua estación de autobuses hasta el Paseo de Sarasate, bajo el lema:

“Euskara hautatzeko askatasuna”

“Libertad para elegir el euskera”

***PORQUE TODOS LOS NAVARROS Y NAVARRAS SOMOS
IGUALES, REIVINDICAMOS LOS MISMOS DERECHOS Y
OPCIONES PARA...***

1. ... escolarizar a nuestros niños y niñas en euskera en nuestra localidad,
2. ... encender la radio y, entre todas las ofertas del dial, escuchar las noticias en euskera las noticias de nuestro entorno,
3. ..., desde nuestro bilingüismo, abrirnos al mundo aprendiendo a comunicarnos en lenguas extranjeras, siendo multilingües.
4. ... la formación continua en euskera y el aprendizaje de personas adultas,
5. ... ver, como una más, la televisión en euskera,
6. ... disfrutar de la cultura, del ocio en euskera, con oferta variada, en igualdad de condiciones, sin penalizaciones.
7. ... elegir el euskera con LIBERTAD.